

ZENBAT BURU
Aitzol Arriola

ERREPORTAJEA
ETXEPE lantegia,
euskaraz bizi eta
lan egin

BERBETAN
Isabel eta Ana
Aizpitarte

KULTURA
11. Korrika,
martxoaren 24an
Elgoibarren



BARREN

1999ko martxoaren 18a
VII. urtea - 271. zkia

E I G O I B A R K O A S T E K A R I A



ETXEPE
KORRIKAREN eta euskararen
aldeko konpromezua

41,

"Euskaraz bizitzea eta euskarari laguntzea da gure helburua" Felix Etxeberria

GREMIOEN GIDA

Gremioen gida honetan azaldu nahi baduzu, deitu ! 0 943 74 37 irMILL

AROSZTEGIA

BIENA
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
943 74 31 16

GARCIA
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
"a 943 74 32 38

JUARISTI
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 16
z' 943 74 29 94

LODOSO
Leihoak
Ermuaranbide, 16
943 74 34 90

SORALUZE
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 3
943 74 36 34

ULAZIA
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
'z 943 74 05 47

ZABALA
Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea, 16
'a 943 74 03 96

1312,ZIMID21

GLAS CONTROL S.L.
impermeabilizazioak
Ubitarte, 7
w 943 74 30 94

ITURGINTZA

ANGEL
Santa Ana, 5
s' 943 74 17 61
"a 689 04 92 06

JAVI
Erretxindi, 1
s' 608 77 29 32

JUAN CARLOS S.L.
Urasandi, 59-61
rx 943 74 34 87

ONGI
Urasandi, 8
72 943 74 10 82

PAGOAGA
San Antolin, 13
17 943 74 02 79

TELLABIDE
Azpilgoeta, 19 MENDARO
17 943 75 50 62
607 75 50 62

ZALDUA
Urasandi, 26
943 74 05 30

ZUBIZARRETA
Ubitarte, 5
IEr 943 74 07 89
z' 608 14 30 40

PINTURAK

IPINTZA
Foruen enparantza, 4
943 74 04 40
w 607 74 04 40

LAU PINTURAK
San Frantzisko, 42
z' 943 74 18 89
943 74 06 73

ELEKTRIKO ATZARAK

ARAMAR
Morkaiko, 1
e. 943 74 12 80

AZPELETA
San Frantzisko, 51
s' 943 74 12 38

BETI ARGI
Errosario, 6
943 74 16 44

URZELAI
Santa Ana, 12-14
'a* 943 74 13 76

IGELTSERITZA

ANTONIO MARKE
Urasandi, 24
tr 943 74 34 18

JOSE LUIS MENDEZ
Urasandi, 24
72 943 74 29 87
z' 689 58 47 23

IPINTZA
Trenbide, 25
tr 607 41 78 67



AITZOL ARRIOLA

Genetikarekin bueltaka

Aspaldian elikagai transgenikoak, ADNa, Dolly ardia... gero eta sarriagotan entzuten ditugun hitzak dira. Denak injinerutza genetikoarekin loturik daude.

Injinerutza genetikoak, bizidunen kode genetiko aldatuz, ezaugarri berriak dituzten bizidunak sortzea du helburu nagusienetako bat. Izaki bizidunen oinarria kode genetiko bat omen da. Zenbait zatiz osatutako "Tente" moduko bat. Kode horrek markatzen ditu izaki bizidun bakoitzaren ezaugarriak. Gizonak adibidez, bi belarri, usaimen kaskarra,... Gaur egun zientzilaria kapaz dira kode hori aldatzeko. Gai dira "Tente" horretan piezak lekuz aldatzeko, kentzeko edo berriak sartzeko. Momentuz, teknologia hau mugatua da, baina jadanik hasiak dira erabiltzen medikuntzan, elikagaien industrian eta beste hainbat arlotan. Militarrek urteak daramatzate lantzen, noski.

Cartagena de Indiasen orain gutxi elikagai transgenikoei buruz jardun dute kongresu batean. Elikagai transgenikoak injinerutza genetikoarekin landuriko elikagaiak dira: beranduago heltzen diren tomateak, ur gutxiago behar duen artoa... Produktu hauek jadanik merkatuan aurki daitezke eta beti gertatzen den bezala, aldekoak eta aurkakoak dituzte. Aldekoek diote, elikagai transgenikoak munduko leku askotan dagoen goseteari aurka egiteko irtenbide ideala direla. Landatze emankoragoak lor daitezke eta bizitza posible ez

den lekuetan landatzeko landareak sor daitezke.

Aurkakoek, berriz, transgenikoak erabiltzea arriskutsua izan daitekeela uste dute. Naturaren oinarrietako batekin jolasten ari garenez, gerora inork ez daki zer gerta daitekeen. Milioika urtean naturak erregela batzuk izan ditu eta, bertan eskua sartzea ez ote da arriskutsua?. Bestalde, giza osasunarentzat arriskutsuak diren susmoak daude.

Orain hiru aste, Kolonbian, elikagai transgenikoak kontrolatuko dituen protokolo edo arau minimo baten bila elkartu ziren munduko naziorik gehienak. Baina ez zuten ezer sinatzerik lortu. EEBBak eta beste bost estatu ez zeuden prest elikagai hauek elikagai berezi bezala onartzeko, eta beraien merkatua kontrolatzeko. Sei estatu hauek elikagai transgenikoen merkatuaren %90a kontrolatzen dute. Iaz EEBBetako enpresa pribatuek 1 '6 bilioi pezeta inguru inbertitu zituzten elikagai transgenikoetan. Eta hainbeste gastatzeko prest dagoenak, zerbait espero du bueltan. Beraz, azken finean, interes ekonomikoak nagusitu ziren Kolonbian.

Injinerutza genetikoak gizonaren bizitza kalitatea hobetzen lagunduko duela diote aditu gehienek. Bai Lehen Munduko gizonari eta baita Hirugarrenekoari ere. Baina askok beraien erabileran arriskuak ikusten dituzte, epe luzera batez ere. Zientziari mugak jarri behar omen zaizkio, baina non daude mugak? Momentuz zientzia bera eta interes ekonomikoak izango direlakoan nago.

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
 tr **943 74 41 12**
Publizitatea:
 ☎ **943 74 37 04**
 Faxe: **943 74 37 04**

E-maila: barren@topagunea.jalgi.com

ARGITARATZAILEA Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala

KAZETARIAK Irati Agirreazaldegi, Asier Orbea

PUBLIZITATEA Maitane Cid

MAKETATZAILEA Bea Ansola

ADMINISTRAZIOA Amaia Martin

GERENTZIA Rafa Alvarez,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK Ainhoa Andonegi,

Aitor Argarate, Idoia Arozena,

Aitzot Arriola, Martin Dominguez,

Jon Eugi, Juanito Gorostiza,

Amaitz Gorriti, Ion Gurrutxaga,

Angelo Iroindo, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Aintzane Larrea,

Ion Loiola, Ongarri Zine Kluba,

thigo Otaño, Andoni Segundo,

Jon Peli Uriguen, iban Urizar,

Amaia Urzelai, Maite Vallejo,

Lourdes Zubiaurre.

BANAKETA ARDURADUNA Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA Gertu Koop. E.

TIRADA 4.000 aie

LEGE GORDAILUA SS-1.038/92

ISSN 1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko
 Jaurlaritzako Kultura
 Sailak eta Foru
 Aldundiak diruz
 lagundutako
 cddizkaria.*



fundazioa
funciacion

44 DANOBAT

4 GOITI
 GRUPO DANOBAT

Tentsioa Euskal Herrian

Ezker Abertzaleak beti defendatu du Euskadi Ta Askatasuna ez dela arazoa gure herriarentzat. Aitzitik, abertzale guztiok defendatzen ditugun helburuak defendatzen ditu.

ETAren su-etenak, Lizarra-Garaziko akordioak eta Euskal Udalerrien Biltzarrak jasotako erasoak agerian utzi du Estatu espainolaren eta frantsesaren demokraziarik eza.

Gure Herriak ilusioz ikusi ditu sei hilabete hauek, ilusioz eta esperantzaz; Euskal Herriak Estatu espainolarekin eta frantsesarekin daukan gatazka politikoaren soluzioa ikusi baitu; gure herriarren eskubide demokratikoak eta bakearen bidea itxaropenez ikusten du.

Estatu espainolak eta frantsesak, aldiz, gerraren aldeko apostu garbia kaleratu dute, beraien lumadun-txakurren eta sasi-kazetarien laguntza osoarekin. Honek sufrimendua bakarrik ekar diezaioke gure herriari.

Gaszte abertzaleen atxiloketak (A3 eta T5 montaje iguingarria) eta orain HBren egoitzaren aurkako txakurren eraso armatua (Estatua, Epaileak, Polizia) lehenengo urratsa da beraien estrategia errepresibo berrian. Aznar eta Orejaren obsesioa (HBren ilegalizazioa) edo agintari abertzale baten asesi-nazea gertatzea ezin ditugu baztertu.

Lizarra-Garaziko akordioak, hauteskundeetan EHK izandako gorakadak eta ETAK su-etenari eustek eske-mak apurtu dizkie Parisi eta Madrili. Horregatik, hordagoa bota dute ekin-tza errepresibo hauekin. Ez dakite, ordea, Euskal Herriak erabakia hartua duela eta ez gerra zikinak, ez torturak, ezta atxiloketek ere ez dutela lortuko subiranotasunaren eta lurraldetasunaren lorpena zapuztea. Lizarra-Garaziko partaide guztiak jakin behar dute hau ez dela Ezker Abertzalearen aurkako eraso, Euskal Herriaren aurkako zik, eta denon artean erantzun beharko dugula, Gure herria defendatzeko mobilizatu beharra dago. Abertzale guztiok zita bat daukagu Iarunbatean Bilbon.

Utzi bakean Euskal Herria.

Elgoibarko HB

+1=11 Zu eta ni euskarat

Martxoaren 24an iluntzeko 20:00etan Korrikari ongi etorria egingo diogu Madalan, aurreko edizioetan bezala Elgoibartik pasatuko delako. Dagoeneko prest gaude giro eta umore onez **KORRIKA** ikusteko eta parte hartzeko.

Elgoibartar guztiok gurekin batera Korrikan parte hartzera edo ikustera animatu nahi zaituztegu. Ekintza hau euskara gure bizitzan eta gure herrian zein garrantzitsua den behin eta berriz gogorarazteko da. Izan ere, ahalegin guztiak ez dira nahikoak euskara mimitatu, gozatu eta erabil dezagun. Gure ustez "korrika" egitea euskararen aldeko aldarrikapena da. Jadanik, normalizazio linguistikoa aurreratuta dagoen arren, oraindik errepideko marra asko daude margotzeko, hau da, bide luzea gelditzen zaigu gure hizkuntzak normalizazio osoa lor dezan. Horregatik, Elgoibarko kaleak jendez gainezka ikustea, denok ondo pasatzea, herri baten oihua indartsu entzutea eta animo berberarekin jarraitzea egunero bizitzan, lanean, etxean, kalean, eskolan etab. gustatuko litzaiguke.

Gogoratu nahi dugu 1+1=11 multzo handia dela eta ea jarraitzen dugun multzo hori handitzen.

AEK Euskaltegiko mintzataldeko ikasleak

BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatula egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia.

©11b1121

• Herritar batek honako galdera luzatu dio BARRRENi: "Azken aldian San Frantzisko kaleko bi tabernatako fatxadak pintatu dituzte, bata horiz eta bestea urdinez. Neretzat behintzat, ez dute batere ondo ematen inguruarekin. Udalak ez al dauka fatxadaren kolorea zaintzen duen araudirik? Batzuek bakarrik zaindu behar al ditugu fatxadak?". Galdera honen erantzuna argitu nahian Udaleko Hirigin-

tza Sailera jo dugu eta zera esan digute: "Fatxaden inguruko arauak badaude, baina ez konkretuki pinturari dagozkionak. Normalean, fatxadak margotu aurretik lizentziak eskatu behar dira eta Udaleko teknikariek gai horri buruzko beraien iritzia ematen dute. Baina kasu gehienetan, Udalera, behin fatxada margotu ondoren etortzen dira, beraz, guk ezin dezakegu ezer egin".



• Hiru mutiko etorri dira eta honako bi kexa hauek azaldu nahi dituzte: Batetik, esan digute, **Mekanikako futbol kanpoan iturririk ez dagoela eta sarritan eskatu arren ez dutela oraindik jarri**. Bestetik, "Urasandin, patinetean ibiltzeko pista berrian farola bakarra dago eta gauez ez da ezertxo ere ikusten".

• Ikastolako neska batzuk etorri dira honako kexarekin: "Ikastolako bidian espaloi zabala dao eta kotxiek bertan aparkatzen dabe. Horregatik gu ezin pasauta ibiltzen gera". Beraz, auto gidariei esan nahi diete hori oinezkoak ibiltzeko Iekua dela eta beste leku baten aparka dezatela.



• Pedro Migel Urruzuno kalean garajea daukan elgoibartar batek bere kexa azaldu nahi du. "Kotxia **garajetik atera nahi dotenian, askotan parian autuak bigarren ilaran aparkauta egoten dia. Hola, bi kotxe pasatzeko karril bat bakarrik lagatzen dabe libre eta ezin izaten dot kotxia ganoraz atera eta sartu**". Beraz, udaltzainei eskatu nahi die zona horretan trafikoa kontrolatzeko.

BAP, ESLEH?



41' : :

Nagore Perez
Modeloa

Aste honetan arropa eta taila kontuei buruz berba egiteko aitzakia ezinhobe topatu dugu. Jakingo duzuen bezala, gazteen arropen tailak arautzeko lege proposamena aurkeztetikotan dira Madrileko Kongresuan. Komunikabide guztien ahotan dabilen gaia da. Izan ere, gero eta taila txikiagoak egiten omen dituzte arropa fabrikanteek. Gaiak alarma sortu du, gero eta gehiago baitira kontrolik gabeko dietak egiten dituztenak taila txikiko arropak jantzi ahal izateko. Moda eta osasuna, biak estuki lotzen dituen gaia da. **Nagore Perez modeloa** gertutik ezagutzen du kontu hau. Gai honi buruz zer pentsatzen duen galdetu diogu.

Gazteen arropa dendetan 42-44 tailak desagertzen ari direla diote. Orain 36 eta 38 tailak dira nagusi. Igarri al duzu aldaketarik? - Bai. Normalean 36 eta 38 tailak dira nagusi. Gainera moda muestrarioetarako sarritan 36 taila eskatzen dute. Neska oso argalak nahi izaten dituzte. Nik 38 taila daukat eta lan batzuk ezin izan ditut egin taila txikiagoa daukaten neskak eskatzen dituztelako.

- Diotenez, modak du errua. - Euskal Herrian ez dago horrenbesteko exigentziarik. Baina Madrilen edoartzelotan lan eginez gero taila txikiak izatea eskatzen dute. Nik hemen ezagutu dut 36 taila izanda lan egin duenik baina baita 40 tailarekin desfilatzera atera direnak ere. Argazkietarako adibidez, oso pertsona argalak nahi izaten dituzte. Pase-etarako aldiz, orokorrean ondo egonez gero, ez diote tailari hainbesteko garrantzirik ematen. Hala ere, oso argalak daukaten nahiago dituzte, loditxoagoak baino.

- Gero eta gehiago esaten da modelo askok anorexia duela. Normala al da modeloen artean anorexia kasuak egotea? - Bai normala da. Modistoez izan dute horretan eragina, beraiek sortu baitituzte horren taila txikiak. Hala ere, gazte askok dauka anorexia, eta ez moda munduan bakarrik. Modaren mundua ipuin polita dela sinestarazten digute, baina gorputz argal askoren barruan arazo psikologiko handiak izkutatzen dira. Hala ere, badira berez argalak direnak eta loditzeko inolako arazorik ez daukatenak.

- Posible da osasuntsu egotea eta 34 edo 36 taila izatea? - Bai. Hori norberaren gorputzaren konstituzioaren arabera da. Betidanik taila hori izan duena eta normal jan duena osasuntsu egongo da. Baina taila horietan sartzeko jateari uzten diotenak naturaren aurka ari direnez, gorputzari kalte egingo diote. Ez osasunaren aldetik bakarrik, baita estetikoki ere. Jendea ez litzateke tailen kontuarekin obsesionatu behar. Bere gorputza zaindu eta ahal duten neurrian hobetu egin beharko lukete, baina norbere buruari eta gorputzari minik eman gabe.

EUSKARRA **ren aldeko** KOKIROMISOA



*Etzeko lau bazkideak:
Felix Etxeberria Parapan', Felix Uriguen,
Kartnelo Bilbao eta Xabier Uriguen.*

*11. Korrikak urteetan euskararen alde jardun duten hamaika lagun, talde eta herri omendu ditu aurten. Elgoibarko Etxepe enpresa omen-
duen artean dago. Gure hizkuntza-
rentzat lan mundua oraindik ere
nahiko arrotza da baina Etxepekoak
aitzindariak ditugu euskararen era-
bilera normalizatzeko ahaleginean.
Kanpoko zein barruko harremanak
euskaraz izateko ahaleginak egin di-
tuzte. Horrela, langile berriak har-
tzerakoan euskara jakitea eta erabil-
tzea da jartzen duten baldintzetako
bat, lanerako gai izateaz gain. Arra-
zoi hauek direla medio eta euskaraz
bizitzeko hartu duten konpromezua-
rengatik omendu dituzte. Errekonoz-
imendu honen atzean dagoen lan
eskerga azaldu diezaguten ekarri di-
tugu gaurkoan gure artera.*

1973 urtean Etxepe enpresa sor-tzea erabaki zuten Karmelo Bilbao, Felix Etxeberriak, Felix Uriguenek eta Xabier Uriguenek, Mekanizazioa lantzen duen enpresa auxiliarra da. Gaur egun 27 langile daude lanean, baina 3 langilerekin hasi ziren duela 26 urte. Hasierako lantokia Erretxindiko baserri batean eduki zuten, Pelouse dantzalekua egon zen tokitik hurbil. Orain dela 11 urte aldatu zuten lantokia gaur egun dagoen tokira, Ibai-Tarte industrialdera, alegia. Etxepen makina erreminta arloa lantzen dute. Baina 4 bazkide hauek sortutako enpresak, arlo ekonomikotik eta industria-letik aparte, bazuen beste asmo bat. Batetik, inguruko herriei eta Euskal Herri

guztiari laguntzea erabaki zuten, euskal nortasuna sakondu eta indartzeko asmoz, Bestetik, ahal zuten neurran, urteroko irabazien zati bat Euskal Herria euskalduntzen laguntzeko emango zutela adostu zuten. Lantegaren barruko funtzionamenduan euskarak izango zuen tratamenduari garrantzi handia eman Zoten, "euskaraz bizitzea eta euskarari laguntzea zen gure hasierako helburua". Euskararen aldeko konpromezu hau Genaro Garatek 1973. urtean Elkarte tratuan idatzi zuen. Bertan enpresa nola sortu zen azaltzen zuten eta oinarritzeko asmo eta helburu nagusiak argitzen zituzten. Etxepekoek gogoan dutenez, "euskara hutsez eginiko lehenengoetariko estatutoa edo Elkarte tratua izan zen gurea".

LAN MUNDUA EUSKALDUNDU

Etxepe sortu baino lehen beste lantoki batzuetan egin zuten lan. Felix Etxeberria 'Parapanek' azaldu digunez, "euskerian aldeko dirulaguntzak ematen zitxuen enpresetan itxen genuan lan, baina eguneroko bizimoduan, paneletan jartzen zian oharretan-eta erderia zan nagusi. Langileen % 75a euskalduna zela kontuan hartuz, kontrae-sana iruditzen jatan euskerari diruz laguntzia eta gero, eguneroko tratuan, erderia ahotan ibiltzia, Ni betidanik ibili naiz holako gauzak aldatziarren borrokan". Arlo askotan mugitu dira euskara bultzatzeko. Komunikabideei dagokienez, Euskaldunon Egunkariaren eta BARREN astekariaren sorrerak finan

tziatzen lagundu zuten. Irabaziak izan zituzten lehenengo urteetatik hasi ziren Ikastolaren mugimendua lagun-zen. "Urte askuan eman genitxun dirulaguntzak, baina ikastola hazten jun zan eta segitxuan gure laguntzak txiki geratu ziazen. Orduan beste bide batzuk urratzia erabaki gendun. Besteak beste, 'Etxepe Literatur sariak' sortu genitxun. 5 urtian antolatu genitxun, baina 92xa krisi urtia izan zan eta sarixak antdatziari laga bihar izan genion".

ONDORENGOENTZAKO EREDUA

Etxepekoek lan alorrean euskararen alde egin duten guztia beste lantokientzako eta enpresentzako erreferentzia izan da. Oran arte lan munduan arrotza zen hizkuntza normalizatzen lagundu dute. Etxeperen eredua jarraituz, euskara erabiltzen hasi dira enpresa asko harreman komertzialetarako. "Bezeroak albaranak eta fakturak euskeraz bialtzen genizkiela ikustian harritxu eitxen zian. Hala ere, batzuri interesgarrixa irudixu jakuen eta gure bidia jarraitzera animau danik ere baclao". Lehen arraroak ziren gauzak gero eta ohikoagoak ari dira bihurtzen, "gero eta gehiago dia faxak eta fakturak euskeraz bialtzen ditzuztenak. Administraziotik bialtzen dizkiguten dokumentuak, edo erakundiek eta elkartiek dirulaguntzak eskatzen dizkigutenian, 'Caritas' erako edo kirol ekintza baterako adibidez, gatzeleraz bakarrik bidali ezkeru, euskeraturik bialdu dezatela eskatzen diegu". Euskal Herritik


Etxeperen eredua jarraituz, euskara erabiltzen hasi dira enpresa asko harreman komertzialetarako.

kanpo ditzuten bezeroei ere faktura eta idatzi guztiak euskeraz bidaltzen dizkiete. "Fakturek eta antzerakuek hitz gehixegi izaten ez dabenez, Bartzelonara, Zaragozara eta beste edozein lekutara euskeraz bialtzen ditzugu", Erdera hutsean jasotzen ditzuten idatziak, berriz, bueltan bidaltzen ditzute, berriz euskeraz bidal diezaieten eskatuz.


OMENTZEKO MODUKO KURRIKULUMA

Korrikaren antolatzaileek Etxeperen berri nola izan duten galdetu diegunean, hau izan da Felixen azalpena: "orain dela bi urte, Korrikaren 10. edizioa ospatzeko, Aita Villasante omendu zaben eta bera izan zan lekukoa eruatzen lehenengua. Aita Villasanterean eskutik lekukoa jaso eta bigarren errelebuia etxeko euskararen alde lan asko eindako norbaitxen bila zebiltzan. AEK-kuek kurrikulum moduko batian euskeraren alde ein ditzudan lanak eta ekintzak jartzeko animau ninduten. Bertan Etxepe ere aipatzen naban eta lan munduan euskeraren alde egiten genitxun ahaiegina kontatzen nitxuan". Azkenean,

AEK-ko irakasleak aukeratu zituzten bigarren erreleboia egiteko. Dena den, Felixek bidalitako kurrikuluma AEKn geratu zen. Korrikaren antolatzaileak Etxepekoegogoratu dira aurten eta omentzea erabaki dute. Albistea sorpresa izan da Etxepekoentzat baina ilusio handia dute beste behin Korrikan parte hartzeko. Esan digutenez, etorkizunerako euskararen alde lan egiteko beste proiektu batzuk ditzute. Hurrengo zita batean kontatzeko laga ditugu horiek.



LANGILEEN AHOTAN



Jesus Mari Espilla

1985, urtetik dabil Etxepen lanean, Berarentzat euskeraz jakitea ez zen oztopoa izan enpresan sartzeko, euskalduna sentitzen baita eta bere eguneroko bizitzan erabiltzen baitu euskara. Bere ustez, "euskera ez jakitearren lanera sartu ezinik geratu dan norbaiti galdetu biharko litzaioke zer uste duen baldintza horretaz. Dana dala, talde batian erdaldun bakarria egotia, gainontzekuak erderaz eitxera laihartzen ditzu".



Iñaki Sarriugarte

1989an hasi zen Iñaki Etxepen. Bere ustez, "inguruko langile guztiak euskaldunak izatiak zeresan handixa daka eta ez dao aitakiarik euskeraz ez hitz egiteko". Lan munduan euskerak aurki ditzakeen oztopoei buruz galdetu diogunean, Iñakik hitz teknikoak eta makben pieza edo atalen izenak euskeratzeak dituen zailtasunak aipatu dizkigu. "Planoak jarraituz eitxengu piezak edo mekanizatuak, eta hoiek ulertzeko nola edo hala ibitzen gera Baina beste hizkuntzekin ere gertatzen jaku hau, askotan planoak ingleseaz edo frantsesez idatzilya eoten dialako".

• Elgoibarko azterketa kartografikoa egingo da

Elgoibarko kartografia egiteko ardura *Agrocarto* enpresari eman dio Udalak. Elkarte Anonimo honen proposamena da aurkeztu diren seien artean egokiena. Aurkeztu ziren beste enpresak honako hauek dira: *LYT Ingenieros Topograficos e Informaticos, Estudio Atlas, Topolan Neurri Ingenieros* eta *Neurki S. C. Agrocarto* enpresakoek 45 hektarearen azterketa egingo dute. Elgoibarko hirigunearen plano topografikoa marraztuko dute 1/500eko eskalan eta enpresako ardura-dunen esanetan, lau hilabeteren buruan amaituta egongo da beraiei dagokien lana. Ikerketa **hau egitea** 2.260.000 pezeta kostatuko zaio Udalari. Beraz, proposamenik egokiena *Agrocarto*rena zela Iritzita, Gobernu Batzordeak Elkarte Anonimo honi eman dio Elgoibarko azterketa kartografikoa egiteko ardura.

• Elgoibarko arau subsitharioek aldaketak izango dituzte

Gillermo Garate alkateak Elgoibarko arau subsidiarioak berrikusteko beharra azaldu du. Izan ere, orain dela sei urte onartu zirenetik zaharkituta gelditu dira. Arauak egin zirenean Elgoibarko biztanleria hazi egingo zela uste zuten, eta 15.000 eta 20.000 bitartekoa izango zela. Baina ez da horrelakorik gertatu. Orain arte, aldaketa zehatzak egin ohi zituzten, baina, datorren legegintzarako aldaketa orokorrak egitea erabaki dute, eta arau subsidiario berriak izango dira herrian.

Psigroki3ko lokalen obrak hasike dituzte laster

Bigarren fasearen obrek 55 milioiko aurrekontua dute

Elgoibarko Parrokia zaharberitzeko obrei buhuruz urtero kaleratzen duten komunikatuan adierazi dute obren hirugarren faseari berehala ekingo diotela. Eliza, liturjia ospakizunetarako berritua eta egokitua dago jadanik. Hala ere, Parrokiako Obren Batzordeak komunikatuan adierazi duenez, "Parrokiaren zerbitzu garrantzitsuak fedearen gaurkotzea eta hezkuntza dira, eta elkartzea pertsonalagoa izan dadin lokal egokiak nahitaezkoak dira".

Beraz, Parrokiak dauzkan beharrei erantzuteko eraikiko dituzte lokal hauek lehenengo eta bigarren solairuetan. *Caritasen* lokala, Parrokiako administrazioa eta agiritegia, apaizaren bulegoa, beste areto bat eta Kristau Ikasbideko gelak egongo dira bertan. Enzio arkitektoa ari da fase honetako proiektua diseinatzen eta 55 milioi inguruko aurrekontua dauka. Hirugarren fase hau bukatu eta gero egingo dituzte gai-nontzeko lokalak, apaiz etxea, kapera eta estalkiaren azpiko lokala hain zuzen ere.



Parrokiako lehenengo eta bigarren solairuetan egingo dituzte lokal berriak.

Herritarrei eskertza

Bestalde, Parrokiako Obren Batzordekoek elgoibartarren eskuzabaltasuna eskertu nahi dute, obrak hasi zirenetik gutxi gorabehera 110 milioi eman baitituzte. 1998 urtean Elgoibarko Udaletik 2.000.000 pezetako dirulaguntza jaso zuten eta Gipuzkoako Foru Aldunditik 20 milioikoa. Era berean, herritarrei zera gogorazi nahi diete: "guztion dirulaguntza ezinbestekoa da, mailegua itzuli behar delako eta oraindik zenbait obra egin gabe daudelako".



Hiru musika talde aritu ziren joan den asteburuan Gaztetxean eta Lanbroa tabernan

Gazte Asanbladak antolatuta, heavy kontzertua izan zen larunbat gauean Gaztetxean. Kontzertua, 23:00ak aldean hasi zen "Kontra" musika talde zumaiaurrekin. Ondoren, Elgoibarko "Mutilated Soul" taldeko bost mutilak aritu ziren (ezkerreko argazkian). Herritarren doinu gogorrak entzutea jende dexente inguratu zen Gaztetxera. Bestalde, musika lasaia goa nahi zutenek, Lanbroa tabernan pop-rock musika entzuteko parada izan zuten. "El duende del Globo" talde ermuarrek lau kideak bertan izan ziren 80. hamarkadako musika jotzen.



'Euskal Laberaren iragarkia Barrutia harategian grabatu dute

Euskal Label produktuen iragarkia San Frantzisko kaleko Barrutia harategian grabatu zuten joan den ostiralean. Jabeak esan digunez, "notaje handixa izan zan, kamara eta foko askokin. Gure karnizerixia berrixa eta haundixa danez, gustau in jakuen anzunziva grabatzeko'. Harategi honetan iragarkia- ren parte bat bakarrik grabatu zuten. Horretarako, aktoreak eta teknikoak kanpotik ekarri zituzten. Iragarkia- ren montajea egin ondoren, Aste Santu ostean agertuko da Euskal Telebis- tako bi kateetan, eta agian Espainiako Telebistan ere bai.



Azken aldian atxilotutakoak askatzearen aldeko manifestazioa

Elgoibarko Herri Institutuko zenbait ikaslek manifestazioa egin zuten joan den ostiralean "atxilotuak askatu" lemape- an. Azken egun hauetan Euskal Herrian eta Frantzian izan diren atxiloteten aurkako protesta izan zen. Herri Institutu- tik atera eta herria zeharkatu ostean Plaza Handian bukatu zuten manifestazioa.

• IMSERSOK antolatutako bldaietarako izena emateko epea zahalik dago

Elgoibarko Udaleko Gizarte Ongizate Sailak, EVISERSOK antolatutako oporretako programan parte hartzeko eskaera epea ireki du. Izen-ematea martxoaren 15ean hasi zen eta eskaria egin nahi duenak apirilaren 15era arteko epea izango du. Pro- graman parte hartu nahi duenak Udaleko Gizarte Ongizate Sailean edo Jubilatutako Etxean lor dezake informazio gehiago.

• Elgoiharko Herri Batasunak Bilhoko Manifestaziora joateko deia egin du

Elgoibarko Herri Batasunak autobusa antolatu du martxo- aren 20an, larunbata, *Bakean utzi arte, ekin lanari* lemape- an, Bilbon izango den manifestaziora joateko. HBkoen esanetan, "gatazka luze honetan horma handi batekin egin dugu topo, estatu espainiarrak eta frantziarrak herri izate- ko aukera guztiak ukatu dizkigute eta. Hala ere, herri oso- ak eta eragile guztiak honen guztiaren aldeko apustu gar- bia egiteko ordua iritsi dela ulertu dute. Arazoen konpon- bidea ez da egun batean eta protagonista jakin batzuen partaidetzatik etorriko, guztion inplikaziotik baizik. Ez da une hau alferrik galdu behar". HBk herritarrei Bilbon egingo den manifestaziora joateko deia luzatu nahi die. Bide batez, gogorarazi nahi dute, HBko Mahai Nazionala astebeteko baraualdia egiten ari dela.

Izar Billa saioko finalerdietan agertuko da Nathalia

Nathalia Mellado Elgoi- barko abeslaria ETB leko *Izar Billa* saioan agertuko da martxoaren 24an, aste- azkena, gaueko 22:30ean. Finalaren aurreko saioa izango da eta bi abesti kantatuko ditu: kanpora- ketan abestu zuen "Ahaztu nahi zintuzket" kantua eta Maldren "Como una flor".

Nathaliarekin batera beste hiru parte hartzaile arituko dira. Onena finalera pasatuko da. Espero dezagun Nathalia izatea Bilboko Arriaga antzokiko finalera pasatuko dena.



Zi°s.,4ot11



Olaso industrialdea. Olasope, 66-A

Tel.-Faxa: 943 74 42 54 20870 ELGOIBAR



INTURAK

PEDRO PEREZ BERISTAIN

San Roke, 30 behea. w 943 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - IIINTAKETA

Izaten al duzu talla arazorik arropa erosterakoan?



ISABEL FAJARDO

28 urte, etxeko langilea

Bai. Askotan gertatu zait nire tailako erroparik ez aurkitzea. Argalegi ez gaude-nok arazo asko ditugu gus-tuko arropa topatzeko.



CARLOS AGIRRE

40 urte, forjaria

Nik ez dut arazorik izan. Modeloek erabiltzen dituz-ten tailak ez dira kalean ikusten eta hori arriskutsua da moda jarraitzen duten gazte askorentzat.



JOSE LUIS LEON

31 urte, torneroa

Momentuz ez dut arazorik izan. Baina ongi iruditzen zait tailen arazoa legez arautzea. Gazteek telebistako modelo-ak bezain argal egotea nahi dute eta hori ezinezkoa da.



BEGOÑA BADIOLA

50 urte, administraria

Nik ez dot problemarik eu-ki. Baina gaizki iruditzen jata edozein gaztetzako denda batera jun, eta gusta-tzen jakon modelua ezin erostia tailagatik.



GARBIÑE MIONDO

31 urte, administraria

Beti topau izan dot nere taila-ko erropia. Ondo beixantzen jata legiekin tailak arautzia. Jendiak erropetan derrigorrez sartu bihar dala pentsatzen dau eta hortik datoz arazuak.



JAVIER MARTIN

19 urte, ikaslea

Ez dut nire neurriko arropa-rik aurkitzeko arazorik edu-ki. Bestalde, modak eta gi-zarteak emakumeak argale-gi egotera bultzatzen ditue-la uste dut.

Txandakako Enpresa Injinerutza

Enpresarekin Ianean garatutako lanbide proiektua.
Lan kontratua lehen egunetik.

Bilera informatiboa

- **Martxoaren 26an, ostiralean, bilera informatiboa egongo da prestakuntzaren ezaugarriak eta sarrera baldintzak azalduko direlarik.**
- o **18:30ean Makina Erremintaren Institutuko instalazioak bisitatuko dira eta 19:00etan bilera informatiboa hasiko da.**

1999/2000 ikasturtea

■ Makina Erremintaren Institutua

San Roke Auzoa, 1
20870 Elgoibar

• Tel: 943 74 41 32
Faxa; 943 74 41 53
E- maila: ingenieria@fmh.es

■ Orduetgia:
08:00-13:00
14:30-17:30



Ce IK11/12^{et}alirentes

M^a Jesus Barrutia

Gelciunit egon 02111 ucii cuidstumed

Maria Jesusek betidanik izan du gustuko bidaiatzea. Lehen aitarekin joaten zen eta hura hil zenean bere izeba Ful hartu zuen bidaietarako lagun. Espainiako bazterrik gehienak ezagutu dituzte biek batera eta aurten ere badaukate eskapadaren bat egiteko asmoa.

- Noiz hasi zinen bidaiatzen?

Duela hogeit hamar urte hasi nintzen. Lehenago aitarekin bidaiatzen nuen eta hau hil zenean izebarekin hasi nintzen. Nire anaiak ere asko bidaiatzen du eta berak prestatu zidan bidaia Palma de Mallorcara. Lehen bidaia hartan hamabost egunetan hamazazpi txango egin genituen. Azken aldian gutxiago bidaiatzen dut, edadean ere aurrera noalako. Hala ere, ez naiz etxean geldit egoten den horietakoa.

- Nora egin dituzu bidaiak?

- Nik asko bidaiatu dut, batez ere Espainian. Canariasen, Costa Bravan, Castellonen, Peñiscolan, Madrilan, Zaragozan eta beste zenbait tokitan izan naiz. Benidormen eta Palma de Mallorcan behin baino gehiagotan izan naiz. Atzerrira joateak ez dit sekula atentziorik deitu, ez dakit hizkuntzaren gatik edo zergatik izan den, baina ez naiz sekula joan. Donostian ere apartamentua daukagu, baina aspaldian ez gara bertara joan.

- Benidormen eta Pairrian egoten omen zara gustura.- Bai. Palma de Mallorcak

Euskal Herriaren antza dauka, berdea da. Tenerifen ere egon nintzen eta hura askoz lehorragoa da eta ez zitzaidan asko gustatu. Benidormeko giroa ere asko gustatzen zait.

- Zer dauka Benidormek horrenbeste jende erakartzeko?

Jende asko egoten da eta giro ona sortzen da. Goizetan hondartzan pasiatzen dugu eta gero hotelera joaten gara bazkaltzera. Bazkalostean telebista piska bat ikusi ondoren igerilekura joaten gara. Hotelean piztina klimatizatua dago eta bertan bainutxoak hartzen dugu. Arratsaldean dotore jarri eta kalerara joaten gara. Gero, afaldu, eta egunero egoten da dantzal-

diren edo ikuskizunen bat. Nik ez dut dantzarik egiten baina oso ongi pasatzen dut besteei begira.

- Askok nekatzen al zara bidaietan?

- Behin Palma de Mallorcan txangoaren arduradun batek esan zidan txango hura ez zela niretzat egokia, asko nekatuko nintzelako. Islako mendirik altuena igo behar genuen eta isil-isilik goraino heldu nintzen. Arduraduna aho zabalik utzi nuen.

- Zer moduzko hotelak zaizidvi?

- Sekula ez dut arazorik izan eta ez naiz inoiz kexatu. Batzuetan, janaria etxean bezelakoa ez denez, ez da horren gustura jaten, baina horrelakoetan kalean erosi ohi dugu beste zerbaitekin. Baina oro har oso hotel onak tokatu zaizkit.

- Laster berriz joango zara bidaia bat egitera.

- Bai, maiatzean Peñiscolara joango naiz eta agian apirilean Benidormera. Udan ere norabaitera joateko asmoa daukat eta Benidormera apirilean joaten ez banaiz, urrian egingo dut bidaia.

- Opariak ekartzea ere gustuko omen duzu.

- Bai, ingurukoentzako opariak ekartzea asko gustatzen zait. Niretzat ez dut gauza askorik erosten baina etxe-koentzat bai. Ahizparentzat batez ere, berarekin asko egoten naiz eta.



GAZTAROKO UROITZAPE A

Sabina arrieta:



Eskuntan, aldizkari akurtzen ari dena da Sabina.



2abina Arrieta 74 urteko elgoibartarra da. Bizitza osoa eman du pelukerian lanean. Txikitatik gustuko zuen lagunei orrazkerak egitea eta oso gaztea zela ikasi zuen langintza. Oraindik ere, noizean behin, alabaren ileapaindegira joaten da laguntzera.

Umetatik izan omen duzu ilea apaintzeko zaletasuna.

- Bai, umetatik nakan afiziva. Ormaetxe, Madalatik aurrera zauan Pagadi bat zan eta hara juaten ginan jolastera. Nik pote baten ura hartzen naban eta orrazi bat eruaten naban. Lagun batek ilia errez domatzekua zakan eta haura orrazten naban.

- Non ikasi zenuen ilepaintyale lanbidea?

- 17 urtekin Don Lorenzo pelukeruakin egon nintzan Eibarren ikasten. Haura amaitxu nabanian, aprendiz bezela jun nintzan Debara, pelukerixa batera, uda baten. Afizio haundixa nakan, baina dirurik ez zauanez, ezin izan naban nere kontura pelukerixarik ipini hasieran. Lehengusifia batek dirua prestau zian eta 19 urtekin pelukerixia ipini naban.

- Beti aritu al zara pelukera moduan?

- Ixa bizitza guztia eman dot honetan. Pelukerixia zabaldu aurretik urtebete in naban Sigman. Tailarrian, pelukera moduan lanian hasi bihar nintzala esan niuenian, gaizki urten ezkeru Sigmako atiak beti zabalik izango nitxuala esan zien bertakuek.

Zer bezero mota izan dituzu?

- Oin pelukerixara astero juaten dan jendia dao. Orduan etxietara juten ginan andrak orraztera. Baina pelukerixara bertara ere etortzen zian. Kanpotarrek pentsatzen zaben euren permanentiak gehixao irauntzen zabala, punta kizkurrak denbora askuan eukitzen zabelako. Baina euskalduneri arpeiz guapa egotia gustatzen jakuen eta ilia hazten zanian berriz in bihar izaten zan permanentia.

- Astebukaeretan ere lan egliten zenuen.

- Bai. Zapatuan egun guztia lanian pasatzen naban. Domekan, goizeko 6:30eko mezia entzun eta 7ak aldian hasten nintzan lanian eta askotan arratsaldera arte. Ahal nabanian futbolera juten nintzan, baina askotan nobixua

futboleatik etortzen zan eta ni oindiok lanian egoten nintzan. Epoka baten lanak amaitxu ezinda goizeko ordubixak arte ere egon izan nintzan. Jendiari azken orduan guapa ipini eta kalera urtetzia gustatzen jakon.

- Noiz arte aritu zara lanean?

- Nik 55 urte bete nitxuanian laga naban. Hiru alaba zauden orduan han lanian eta beintxantzen jakuen nausixa nauala lanerako. Oin noizian behin diar itxen die burua garbitzeko eta bitxartian ni ere orrazten nabe. Gainera, euki ditxut klientak oindiokan ere nik orraztia nahi dabenak. "Relaciones pOblicas" bezela egoten naiz askotan, jendiari konbertsaziva ematen.


- Hainbeste urtean izango zenuen anekdotarik.

- Emakume bat hogeita bost urtian gure pelukerixara etorri gabe zauan, eta egun baten alabakin azaldu zan. Esan zian lehen orraztu naban bezela orrazteko orduan ere, eta nik hainbeste urte pasauta ez nakan goguan zer in bihar nion. Hala ere, dotore orraztu eta konforme juan zian bixak bodara.



Joan al zara inoiz IMSERSOk antolatzen dituen bidaietara?

Asko eta asko dira jubilaziora iritsitakoan bidaiatzeko gogoia izaten duten edadetuak. Gaztaroan gozatu ezin izan zutena orain eza-gutu nahian, herritik kanpo joaten dira. Benidormera, Mallorcara edo beste zenbait tokitara eskapatxoa egiteko aukera ematen die IMSERSOk. Izena emateko epea ireki berri dela-eta Elgoibarko edadetuengana jo dugu IMSERSOk antolatutako bidai hauekara joan diren jakiteko asmoz.



Maria Parejo

Ez naiz sekula joan. Agian egunen batean joango naiz baina oraingo ezin dut. Bilobaz arduratu behar dut eta ez daukat joateko astirik. Hala ere, gizonak esaten dit noizbait joan behar dugufa IMSERSOk bi-elaiaren batera. Dena den, orain oporretan nire kontura joaten naiz Benidormera.



Pura Bengoetxea

Ez naiz bidaiaria horietara joaten. IMSERSOk bidaietara batzuk bakarrik joan beharko ratekela uste dut. Dirua daukatenek bereaiek ordaindu beharko lituzkete oporrak eta ez besteen dirua aprobetxatuz joan. Ni bidaietara joan naizenean nire poltsikotik ordaindu dut.



Consuelo Otaegi

Nik IMSERSOtik biaje bakarra in dot. Benidormera jun ginan eta han lehenengo bidar izan ginanez, toki berrixak ikusi genitxun. Bestela ere, leku askotan ibilf gera. Aurten ez dakit jungo geran, baina Benidormeko biajetik oso gustora etorri ginan eta berriz ere jungo geralaIMSERSOkin.



Alejandro Pascual

Orain dela zortzi urte jubilatu nintzen baina oraindik ez naiz sekula bidaiaria horietara joan. Hala ere, badaukat gogoia eta emazteak ere joan behar dugula esaten dit. Baina, istripuak direla-eta beldurra ematen dio eta ez dakit noiz joango garen. Bestalde, gure kontura joaten gara Burgosera oporretan, giro aldaketa oso ona baita.



Juan Galarraga

Ni sekula ez naiz joan eta ez dakit inoiz joango naizen, oin ez behintzat. Hemen baino hobeto ez gaude inun. Basarrira juten naiz eta bertan ondo egoten naiz. Herrixa zaintzen ere batenbat gelditxu bihar da.

Bizkarrezurreko mina

Bizkarreko mina izenez eza-gunagoa den bizkarrezurreko gaixotasuna jende askok izaten du. Herrialde garatuetakoko pertsonen %80ak izan ohi du bizkarreko mina bere bizitzako uneraren batean. Bizkarrezurra zaintzea edonoren esku dago eta edadean aurrera eginagatik inoiz ez da berandu nor bere osasuna zaintzeko. Beraz, hona hemen, bizkarrezurreko arazoak prebenitzeko zenbait gomendio.

1. Ohe gogorrean lo egin (gaur egungo koltxoiak eta somierrak gogorrek dira). Bizkarrak posizio lauan atse-den hartuko du. Honela, bizkarrezurrak bizioz hartu ohi dituen posturak zuzenduko ditugu. Buruko altua gure kalterako da.
2. Gauza pisutsurik ez hartu. Hartuz gero, hankekin egin behar da indarra. Altzarien gainean dauden gauzak hartzeko ez da gorputza luzatu behar, ez eta autoko mafeterotik poltsak ateratzeko ere.
3. Eserita gaudenean ahalik eta postura tenteenean egon behar dugu. Batez ere lanean edo gidatzen ari garenean. Denbora askoan zutik egotea ez da batere komenigarria.

4. Pisua zaindu behar dugu, eta behar izanez gero, mehetu, beti ere sendagileak kontrolatuta.

5. Oinetako erosoak erabili. Zabafak eta takoi txikikoak. Oinak deformatuta izanez gero, komenigarria da plantila ortopedikoak erabiltzea. Askotan okerreko oinetakoak erabiltzeak bizkarreko mina ekar dezake.

6. Mina daukagula igarriz gero, toki horretan beroa jartzeta da onena, horretarako, manta elektrikoa erabil dezakegu. Bestela, masaje batek ere on egingo digu.

7. Osteoporosia izan eta medikuak horrela gomendatuz gero, kortsea erabili beharko genuke. **Batez** ere, autoz edo hegazkinez egin beharreko bidaia luzeetan.

8. Eguzkia hartzea oso ona da, baita esnekiak hartzea ere. Azken hauek gauzez hartzea da egokiena, kaltzioa hobeto barneratzen baita.

9. Honako gauza hauek egitea gomendagarria da: hankak indartzeko oinez ibiltzea; bizkarrezurra zaintzeko kirolrik egokiena igeriketa da. Baina, oro har, ariketa fisiko guztiak dira onak neurrian eginez gero, eta ahal bada, aditu baten gidaritzapean egin.



ERREZETIA

IRREZETIA • ERREZETIA

Presentaci6n

Gaona Barazki menestra

OSAGAIAK:

Lekak, azelgak, alkatxofak, esparragoak, azaloreak, olioia eta sobreko txanpinoi zopa.

PRESTAKETA

Lehenengo, barazkiak egosiko ditugu, bakoitza bere uretan. Ondoren, azelgen penkak, azaloreak eta alkatxofak arrautza-irinetan pasatuko ditugu. Gero, lurrezko ontzi batean, olioia, kipula eta berakata jarri eta bigundu arte itxarongo dugu. Behin biguntzen direnean, sobreko txanpinoi zoparen hautsa botako diogu eta honi barazkien salda gehitu. Barazkien ura beharrean, txorroko ura erabil genezake edo baita esparragoena ere. Saltsa horren gainean barazkiak jarri. Beste aukera bat da barazkiak beste ontzi batean jartzea eta saltsa gaineratik botatzea. Gero, urdaiazpiko zatitxo batzuk zartaginean pasa eta barazkien gainean jarriko ditugu. Bukatzeko, irakinaldi bat eman eta menestra jateko prest izango dugu. Lan eta denbora asko eskatzen duen platera da menestra. Baina ziu egon hau prestatzen clue-nak arrakasta lortuko duela.

ZETIA • ERRE

ERREZF"IA

Ana eta Isabel Aizpitarre San Bartolomeko 'Txata' janaridaren jabeak dira. Dendan lan asko egin dute eta beti erakutsi dute bezeroarekiko arreta berezia. Hori izan da negozioan goian mantendu dituen. Zentro komertzialak ugartzen ari diren honetan denda txiki honek Elgoibarren bizirik iraun du. Ana eta Isabelen amak, Juana Urresti "Txata"k, ireki zuen denda 194lean eta horrenbeste urteko jarduerarengatik Gipuzkoako Merkataritza Federakuntzak saria eman die.

ANA eta ISABEL Aizpitarre

"Zerbitzu ona eta be/eroekiko interesa eskaintzen ditugu"

—**Sari bat irabazi berri duzue.**

- Bai, Gipuzkoako Merkataritza Federakuntzak Jarduera Komertzialari ematen zaion saria jaso dugu. Berrogeita hamar urtetik gora dauzka dendak eta oraindik hemen lanean jarraitzen dugulako egin digute omenaldi hau Gipuzkoako bederatzidendari.

—**Nola aukeratu dute zuen denda?**

- Urtero, sariketara aurkezteko eskaera orria jasotzen dugu, baina aurtengo urtera arte ez dugu sekula bete. Aurten sariketara aurkeztea erabaki genuen eta aukeratuak izan gara.

—**Saria pozez jasoko zenuen, ezta?**

- Bai. Ilusioa egin digu. Gainera herrian izugarritzko ohiartzuna izan du eta jende askok zoriondu gaitu. Komunikabideetatik ere dei asko jaso dugu. Amari ilusio handia egingo lioke, baina

bera bizi zenean ez genuen eskaerarik egin eta berandu etorri da saria. Hala ere, omenaldi honek denon lana saritzeko balio du, bai gurea eta baita gure amarena ere.

—**Zenbat urte dauzka dendak?**

- Dendak 58 urte dauzka. Gure amak zabaldu zuen eta hasieran denda tradizionala zen. Ama erretiratu zenean gu hasi ginen eta gaur arte jarraitu dugu. Oso gazterik hasi ginen amarekin dendan, 20 urte inguru geneuzkan eta jadanik 40 edo 45 urte daramatzagu lanean.

—**Dendak aldaketa asko izan al ditu urte hauetan?**

- Bai. Hasieran ama bakarrik hasi zen eta orain lau lagun gaude dendan. Beti leku berean egon da, baina lehen denda tradizionala zen eta orain autozerbitzua da. Duela 12 urte inguru obra egin genuen eta denda autozerbitzio bezala jarri genuen. Denda guztien tendentzia ho-

ri zen eta gure burua gauza bera egitera behartuta ikusi genuen. Badakizue, esaerak dion bezala, berritu ala...

- **Zergatik ezagutzen da denda "Txatianekua" ize-nez?**

Ama, gaztea zenean Cafe Izetan egon zen zerbitzari eta orduan jarri zioten izen hori. Gero ezkondu egin zen eta ezizena galdu zuen. Baina denda ipini zuenean jendea berriz "txatia" deitzen hasi ziren eta guk ere izen berarekin jarraitu dugu.

—**Denda txikia izanik, herrian ezaguna da eta jende asko etortzen da zuengana.**

- Bai, zerbitzu ona eskaintzen dugu eta bezeroekiko interesa erakusten dugu. Beraz, supermerkatu handiak egon atTen, jendeak guregana etortzen jarraitzen du.

—**Dendak jarraipena izango duela uste al duzue?**

Ez dakigu zer gertatuko den. Nik (Isabelek) 65 urte bete behar ditut eta jubilatuta egingo naiz, hala ere, oraindik ez dugu pentsatu zer egingo dugun. Familian oraingoz ez dugu jarraipenik izan, baina guk laga ezkeror, orduan etxekoekin kontaktu beharko dugu. Denda mota honek lan asko ematen du eta beraiek beste lan batzuetan dabilzanez, ez dakigu gure postua hartuko duten.

—**Igandeetan ere zabaltzen duzue denda.**

- Igandeetan turnoko okindegiko ogia saltzen dugunez, denda zabalik edukitzen dugu. Hala ere, biok bakarrik egoten gara. Igandeetan lan egitea nahiko gogorra da, baina gero, bakoitzak astean egun bat jai hartzen du. Oporretarako ere txandaka egiten dugu, bakoitzak hilabete hartzen du jai.

EESTEK ESANA

"Kalidadia eta atentziva ematen dabenez urte askuan etorri naiz 'Txatia'nera". GARBIÑE GOROSTIZA, bezeroa.



Iruru elgoibartar ¹'Madrileko 50 kilometro' lasterketan izan dira

Iñaki Izagirre, Pilar Arriola eta Asier Arrieta, hirurak batera iritsi ziren helmugara

Asier Arrieta, Pilar Arriola eta Iñaki Izagirre "Aldai" elgoibartarrek 'Madrileko 50 kilometro' izeneko lasterketan hartu zuten parte aurreko igandean, hilak 21. Iñaki Konde ere bertan izan zen. Izan ere, Madrileko 100 kilometro egin zituen Iñakik iaz. Pilar, Aldai eta Asier bera animatzera eta laguntzera joan zirenez, aurtentziz egitea erabaki dute. Hiru elgoibartarrak korrika egitera joan dira eta Iñaki Kondek laguntzaile lanak egin ditu. Hiru elgoibartarrak elkarrekin heldu ziren helmugara eta 4 ordu eta 52 minututan amaitu zuten erresistentzia handia eskatzen duen proba hau. Afizionatuentzako lasterketa herrikoia da eta dena 200 lagun inguru



Lasterketa hasierako argazkia dirudi, baina 50 kilometro egin ostean ateratako argazkian agertzen dira Iñaki, Pilar eta Asier.

ausartu ziren 10 kilometroko zirkuituari bost buelta ematera. Vallecas auzo ezagunean izan zen lasterketa eta esan digutenez, ikusle oso gutxi egon zen bide bazterretan. Gehiegi entrena-

lometro egiteko aukera ere badago. Izan ere, Iñaki Kondek 100 kilometro egin zituen iaz. Aurtentziz, hirurak elgoibartar hauek 50 kilometro egitea erabaki dute.

tu gabe joan zirela aipatu digu Pilarrek, "hilabete eta erdiko preparazioa bakarrik genuela jun ginan eta gutxienez hiru hilabeteko entrenamendua eskatzen daban lasterketia da. Gainera, ibilbide oso gogorra eta aldapatsua zan. Hankek asko sufritzen dabe, batez ere 30. kilometrotik aurrera. Eskerrak gutxienez eguraldixak lagundu zaban".

Madrileko lasterketa honek 100 kilometroko ibilbidea du baina 50 ki-

• Sallobenteko Pikda Mapelkelaka finalak hilar, hilak 19, jokatu dira

LLI

Artazo pilotaria zenaren omenezko eskuz binakako finalak Sallobenteko frontoian jokatu dira ostiralean, hilak 19, Sallobente Elkartek antolatuta. Meza nagusia 10:30ean hasiko da eta meza bukatu ostean, 11:30ak inguruan, bigarren mailako bikoteen finala hasiko da. Arrillaga eta Kateik

Otl

CC

Urtubia eta Agirregomezkortaren aurka neurtuko dituzte indarrak. Bigarren partiduan lehen mailako pilotariak arituko dira eta finalera iristea lortu duten bikoteek hartuko dute parte. Partidu honetan Agirrebeñak eta Egafiak Tx1-11arre eta Osororen aurka jokatu dute. Partiduen ostean, bildots jana izango da Sallobente Elkartean.

O

CC

Jose Mari Arakistain elgoibartarra Beasain entrenatzaile berria da

Jose Mari Arakistain entrenatzaile elgoibartarrak Liga amaitzeko 10 partidu falta direnean, 2.B mailako Beasain taldea entrenatzeko ardura hartu du. Astebete dararna taldearekin eta bere helburua taldea jaitziera-tik salbatzea izango da, 16. postuan baitago Beasain. Hala ere, Liga oso orekaturik dago eta azken hamar taldeen arteko aldea oso txikia da. Jose Marik bi urte zeramatzan talderik entrenatu gabe, baina lehenago ere Beasain taldearen entrenatzailea izandakoa da eta etron-



ka hau, ilusio eta gogo handiz hartu duela aipatu digu. "Jokari oso gaztiak dia eta Liga hasieran maila ona erakutsi ondoren, beherantz datoz. Partidu asko jokatu dituzte eta tentsiva asko igarri dabe. Nire lana falta jakuen freskuria berreskuratzen laguntzia izango da. Batez ere, lan psikologikoa da". Momentuz urte bukaerara arte du kontratua Jose Marik eta txapelketa arnaitzeko denbora gutxi falta den arren, dakiena erakusteko aukera izango du..

Arrantza denburaldia hihar, hilak 19, hasiko da

La Unic5n Elkarteak Sallobente errekan arrantzatzeko
5 baimen zozketatuko ditu

Arrantza denburaldia martxoaren 19an hasi eta uztailearen 31era arte luzatuko da, egun biak barne. Arrantza-barrutien funtzionamendua Gipuzkoako Arrantza Federazioaren ardurapean dago. Sallobenteko barrutirako zozketak Elgoibarko *La Union* Elkartearen egingo dira gaur, osteguna (hilak 18) iluntzeko 20:00etan. Guztira 5 baimen zozketatuko dira, eta ostiralak eta domekak izango dira arrantzarako egunak. Zozketan parte hartzeko Federazioko baimena eduki behar da. Gipuzkoako ibaietan gehienez 7 amuarrain harrapatu daitezke. Amuarrainen gutxienez 22 cm-koa izango da. Arrainen luzera neurtzeko, berriz,



Arrantza-baimenen zozketan parte hartzeko beharrezkoa da Federazioaren litzentzia atera berri izatea.

buruaren aurrealdetik buztanaren erdiraino dagoen luzera hartuko da kontuan. Gipuzkoako barrutietan arrantza-baimenak erabili ondoren nahitaezkoa izango da harrapatutakoaren berri ematea. Horretarako, arrantzaleak, nahiz eta baimenik

ez erabili edo arrainik ez harrapatu, harrapaketa parte aurkeztu beharko dio Arrantza Federazioari an'antzan aritu ondorengo 15 eguneko epean. Hala ez egiteak denburaldi honetan eta hurrengoan baimen berririk ez ematea ekarriko du.

Ikastolako frontea jendez gainezia egon zen Pilota Egunean

Joan den zapatuan, hilak 13, Ikastolak antolatutako II. Pilota Eguna izan zen. 6 eta 13 urte bitarteko 64 pilotari gaztetxok hartu zuten parte pilotaren festan. Hurbildu ziren ikusleek ederki pasatu zuten neska mutilek eralcutsitako ikuskizunarekin. Elgoibartar gaztetxoaren artean pilota zaletasuna suspertzea zen festa honen asmoa. Guztira 16 partidu jokatu zituzten, zortzi nesken arteko partiduak izan ziren eta beste zortzi mutilen artekoak. Joko ona eta emozio handiko partiduak ikusteko aukera izan zuten bertara hurreratu zirenek. Pilotari gaztetxoek erakutsi zuten ilusioa eta bizitasuna txalo zaparraden bidez eskertu zuten. Ikusleen kopurua eta jarrera eta haurren gogoia ikusirik, etorkizun oparoa du pilotak Elgoibarren. Pilotarekiko zaletasuna badagoela ar-



Argazkian 8 eta 9 urteko pilotariak agertzen dira euren garaikurrekin.

gi geratu zen. Dena den, adin batetik aurrera, gehienek pilotan jokatzeari utzi eta beste kirol batzuk aukeratzen dituzte, adibidez, futbola edo saskibaloia.

'A T ' Z ' A ir

Futbola

Haundi 2 - Zaragoza 0
Pedrusko 0 - Groseko 0 (2. erreg.)
Elgoibar 3 - Amorebieta 0 (L. N. jub.)
Elgoibar 2 - Bergara 3 (Inf. aur.)
Zumaiako 3 - Elgoibar 1 (1. erreg.)
Zarautz 6 - Elgoibar 3 (1. jub.)
Antoniano 0 - Elgoibar 5 (Neskak)
Aitzgorri 0 - Elgoibar 3 (Inf.)

Areto futbola

Lim. Ardoilana 2 - Zur Ta Lur Elg. 4 (1. maila)
Autor. Puertos 4 - Zur Ta Lur Elg. 7 (Auton.)

Eskubaloia

1MH Elg. 27 - Imundi Bergara 25 (Sen. mut.)
Askartza Claret 11 - IMS Elg. 17 (Sen. nes.)
Kukullaga 16 - Unceta Elg. 15 (Jub. nes.)
Kukullaga 15 - Pagoaga Elg. 19 (Kad. nes.)

Futbitoa

Berrogei Duro 0 - Aiz. Mendibil 1
PSK 4 - Aide Globun 2
Kunta Kinte 3 - Los Herminios 2
S. Braga 1 - Los Peñaskos 2

Idarraga Kafeak 2. saria

HAUNDIKO jokatori erregularrena 98/99
JOKALARIA PUNTUAK

1- Aitor Trebiño	32
2- Eneko	28
3- Txasio	25
4- Madina	25
5- G. Lazarobaster	24
6- Iker Leonardo	22
7- Diaz	21
8- Ibon Muguruza	20
9- Garo	20
10- Beitia	18
11- Elkorro	15
12- Gurrutxaga	12
13- Igor	11
14- G. Leonardo	10
15- Loren	9
16- Portu	1

II@LIBUlin

Areto Futbola, Kiroldegian

Osteguna, 18
22:10 Zur Ta Lur Elg.-OpelArregi (1. maila)
23:10 Zur Ta Lur Elg. - Moulinex (Auton.)

Futbola, Mintxetan

Ostirala, 19
11:45 Elgoibar- Kilimon (1. erreg.)
Larunbata, 20
15:30 Elgoibar - Osiadar (Neskak)
17:15 Elgoibar - Pasajes (1. jub)
Igandea, 21
12:00 Elgoibar - Tolosa (Inf)

Futbitoa, Kiroldegian


Igandea, 21
10:00 Berrogei Duro - Lojantzi
11:00 PSK - Kunta Kinte
12:00 Aide Globun - S. Braga
13:00 Los Peñaskos - Los Herminios (Kopa)

Rai 2L

Sorpresa, sorpresa

niska denda batean sartzeak zer sup-
ilsatzen duen jakinda, bat bisitatzea
erabaki nuen. **CD** berriak dauden sekzioa
alde **batera** utziz, nire poltsikora hobeto
egokitzen zen sailera jo nuen. Gehienak
gainbegiratu ondoren, azal ezaguna zuen
batek nire atentzioa deitu zuen. *Stranglers*
taldearen 1. diska zelakoan hartu eta
CLAW HA1VIMER irakurri nuen. Instant
batean, metalgintzan aritzen den talderen
baten edozein lan iruditu zitzaidan, buelta
eman nion arte. 4 abestiz konposaturiko
diska zen. Begiak biribilduz, lehen abestia
Duke Ellingtonen "Caravan" famatua zela
ikusitua nuen, bigarrena, aldiz, Artie Shawren
"Nightwave". Hirugarren abestia Miles
Davisen "All Blues" zenez, bilatzen zau-
dena topatzen duzunean marrazten zaizun
irribarrearekin, erostea erabaki nuen. Tal-
dekideak: tronboia, saxo tenorea, pianoa,
bateria, baxua eta kitarra; ahotsa azken
abestian baino ez da agertzen. Etxera bel-
du eta CDa jarri orduko erosketa bikaina
egin uela konturatu nintzen. Seikote ho-
nek ederki musikatu ditu jazz klasikoaren
konposizio hauek, gehiegi egokitu gabe,
baina edozein erakartzeko estiloa berega-
natuz, *the jazz explosion*. Oraingoz ez dut
talde honetaz informaziorik topatu, baina
sorpresatxoren batekin topo egiteko espe-
roan ikertzen hasi beharko dut... Ia ahaztu
egin zait, Iaugarren abestia *The Jesus Li-
zard* taldetik gertu egongo litzateke, zer
moduz?

Iban Urizar



Korrika, elskararen aldeko jai Crraldoia, hilaren 24an helduko da Elgoibarrera

Iluntzeko 20:00etan ongi-etorria egingo zaio Madalan

*Martxoaren 19an 11. Korrikak Iru-
ñean hasiko du 2.200 kilometroko
ibilbidea, gctu eta egun, euskararen
mezua zabalduz Euskal Herri eta
hiri gehienak pasatuko ditu Donos-
tiara iritsi arte. Aurtengo ekital-
dian, batetik, euskararekiko kon-
promezuaren ideia zabaldu nahi du
AEK-k eta, bestetik, 'hamaika' hi-
tzak euskaraz adierzten duen ugari-
tasun ideia.*

orrika Azkoititik hel-
Kduko da martxoaren
4an, asteazkena,
iluntzeko 20:00etan. AEK-
koek esan digutenez, "Az-
karaten hartuko dugu leku-
koa eta herriko kaleetan ze-
har pasatu ondoren, Saturi-
xon entregatuko dugu".
Korrikari Madalan egingo
zaio ongi-etorria iluntzeko
20:00etan eta gure herrian
egingo duen ibilbidea hona-
ko hau izango da: Azkarate,
San Antolin, San Pedroko
etxeak, Pedro Mugu-
ruza, Madala, San
Frantzisko kalea, San
Bartolome kalea, Pla-
za Handia, Santa
Ana kalea, Sigma-
ko zubia eta Sig-
ma auzoa zehar-
katu ostean, Sa-
turixon amaituko
da. Korrikaren eto-
rreara ospatzeko anto-
latu den egitaraua hona-
koa da: eguerdiko
12:00etan Korrika Txi-
kia, iluntzeko 19:30ean
trikitilari eta txistulariekin
kalejira, iluntzeko
19:55ean Haritz Dantza
Taldeak Ohorezko agurra
dantzatuko die Etxepeko
sortzaileei Madalan.
Gogoratu behar dugu
Etxepe lantegia Euskal
Herrian 11. Korrikak

korrika

omendu duenetako bat dela lan harre-
manetan euskararen normalizazioaren
alde egindako lanarengatik.

Korrika Txikia

Datorren asteazkenean, hilak 24,
eguerdiko 12:00etan Ikastola, Herri
Eskola eta Pilar ikastetxeko ikasle-
ek 11. Korrikaren barruan Kon-
ika Txikia egingo dute. Ibilbi-
dea honakoa izango da: King
Kongetik irten eta San
Frantzisko kalea, Erro-
sario, Santa Ana eta
Antonio Arrillaga ka-
lea zeharkatu oste-
an, Plaza Handian
amaituko dute ibil-
bidea. Bukatzeko,
korrikalari guz-
tiek 11. Korri-
karen abestia
kantatuko
dute.



Ahti a Fi ciredo

IKASFA - 16 URTE



1 - Merezi al du bizitzea? Eta Elgoibarren bizitzea? - Bai noski, zerbaitetarako gaude hemen. Elgoibarren bizitzea ondo dago, baina gure adinekoentzat asteburuetan ez dago gauza asko.

2 - Eutanasia praktikatu-ko al zenuke familiako batekin? - Oso gaizki egongo balitz eta eskatuko balu, bai.

3 Hil eta gero? - Gu jaio aurretik zerbait zegoen eta hil ondoren ere zerbait egongo dela uste dut.

4 - Lehenengo ni eta gero besteak. - Nire ustez ondo dagoenak, agian kalte egin diezaioke beste bati. Beraz, besteekin ere pentsatu behar da.

5 - Nori kontatzen dizkiozu arazoak? - Normalean amari, berarekin oso ongi konpontzen naizelako.

6 - Zein da zure bizitzako anbizioa? Eta bizioa? - Medikua izatea gustatuko tzaidake baina horretarako lan handia egin behar da. Bestalde, oso alferra naiz eta, nire bizioetako bat telebista ikustea da.

7 - Sinesten al duzu politikan? Eman al duzu boto-rik? - Ez dut horri buruzko iritzirik. Oraindik ez daukat botua emateko adinik, eta ez dut pentsatu botatuko dudana ala ez.

8 - Noiz joan zinen azkenekoz manifestazio batera? - Ez naiz sekula manifestazio batera joan.

9 - Euskalduna naiz eta harro nago? Bai, hizkuntza desberdinak egotea aberasga-



rria dela iruditzen zait eta gustokodut euskalduna izatea.

10 - Zerk galerazten dizuloa? - Azterketen aurreko nerbioek.

11 Joaten al zara Gaztetxera? - Ez, nire lagunak ez dira joaten eta bakarrik ez joatearen nire ez naiz sartzen.

12 - Gurasoek asko sufritzen al dute zurekin? Ez, ez diet arazo handirik ematen.

13 - Zer da zure gurasoengandik gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien? - Gehien, amarekin konfidantza osoz hitz egin dezakedala eta aitak edozein arazori irtenbidea erraz bilatzen diola. Gutxien, aitaren genio txarra, eta arnak ikasi behar dudala esaten dit askotan, eta ez zait batere gustatzen.

14 - Laguntzen al duzu etxe-ko-lanetan? - Bai. Platerak garbitzen ditut, ohea egiten dut eta hautsa ere kentzen dut batzuetan.

15 - Ondo pasa al daiteke alkoholik gabe? - Nik ez dut alkoholik edaten eta ongi pasatzen dut.

16 - Irakurri duzun azken burua? - *El principe destronado*, Miguel Delibesena.

17 - Sexua maitasunik gabe ala maitasuna sexurik gabe? - Maitasuna sexurik gabe.

18 - Birjinitatea traba ala bertutea? - Traba bat ez da, izatekotan bertutea.

19 - Homosexual batek maitate zaituela esango balizu? - Ni homosexuala ez naizela esango nioke baina ulertuko nuke bere egoera.

20 Sinesten al duzu betiko maitasunean? Agian egongo da, baina pertsona hori aurkitzea oso zaila dela iruditzen zait.

113 osteguna

19:00 FAUSTO
MORGADOREN
MARGOAK
Kultur Etxean
Apirilaren 5era arte

22:15 ZINE KLUBA
"El dulce porvenir"

19 ostirala

19:00-22:15 ZINEA
"¿gonoces a Joe Black?"

larunata

19:00-22:15 ZINEA
"¿gonoces a Joe Black?"

21 igandea

19:00-22:15 ZINEA
"¿gonoces a Joe Black?"

22 astelehena

22:15 ZINEA
"¿gonoces a Joe Black?"

23 asteartea

20:00 HITZALDIA
Gaia: 'Euroa'
Antolatzailea:
Txankakua Merkatari
Elkartea
Kultur Etxean

24 asteazkena

12:00 KORRIKA
TXIKIA
King Kongen hasi eta
Foruen Plazan bukatu

20:00 KORRIKARI
ONGI-ETORRIA
Madalan

25 osteguna

19:00 IKASTOLAKO
DBHko IKASLEEN
JAIALDIA
Herriko Antzokian

19:00 HITZALDIA
Gaia: Frida Khalo
Hizlaria: Ana Irigoien
EHUko irakaslea
Kultur Etxean
Antolatzailea:
Urruzuno Literatur Taldea

22:15 ZINE KLUBA
"Gato negro, gato blanco"

28 ostirala

18:30 BILERA
INFORMATIBOA IMHn

18:30 ODOLATERALDIA
Pedro Migel Urruzuno 8an

22:15 ZINE KLUBA
"Gato negro, gato blanco"

11 NE A



Zuzendaria: Martin Brest.
Antzezleak: Brad Pitt,
Anthony Hopkins, Claire Fontaine.

1. Conoces a Joe Black?

William Parrish negozio-gizon dirutsuak gazte dotorea eta jantzia ezagutuko du. Negozio-gizona berebala konturatuko da ezagutu berri duen gaztea gizaki itxura hartu duen 'Herio' dela. William berekin eramateko etorri da 'Herio', baina bien artean erlazio sendoa sortuko da. 'Herio' bere biktimaren gizatasunaz jabetuko da, bai eta berari arrotza zaion bizitzaren konplexutasunaz ere.

• **Ikastolako OBHko ikasleen jaialdia**

Ikastolako DBHko ikasleek jaialdia izango dute Herriko Antzokian datorren ostegunean, hilak 25, arratsaldeko 19:00etan. Jaialdi honetara hurbiltzen direnek denetik ikusteko aukera izango dute. Besteak beste, Massiel, Queen, Koska eta beste talde batzuen kantak abestuko dituzte. Gainera, Valentino eta Versaceren azken modeloak ikusteko parada izango da.

• **Bilera informatiboa IMHn**

Datorren ostiralean, hilak 26, Makina Erremi ntaren Ins titutuak Txandakako Enpresa Injinerutzari buruzko bilera egingo du. Arratsaldeko 18:30ean bisita egingo dute ikastetxea ezagutzeko eta ondoren hasiko da bilera.

• **Euroari buruzko hitzaldia izango da hilaren 23an**

Euroari buruzko hitzaldia emango du Angel Ardanaz ekonomistak datorren asteartean, hilak 23. Hitzaldia arratsaldeko 20.00etan izango da Kultur Etxeko hitzaldi aretoan eta 30 eta 60 urte bitarteko pertsoneri zuzenduta dago. Euroak ekarriko dituen aldaketak eta ondorioak azalduko ditu modu errazean eta poliki-poliki herritarrek txanpon berrira ohitzen joan daitezten pistak emango ditu. Beraz, euroari buruzko informazioa jaso nahi dutenek bertara joan baino ez dute.



• **Fausto Morgadoren margo eta eskultura erakusketa inauguratuko dute, gaur, hilak 18**

Gaur, hilak 18, iluntzeko 19:00etan inauguratuko dute Fausto Morgado artista eibartarraren margo eta eskultura erakusketa. Guztira 20 margo eta 3 eskultura egongo dira ikusgai. Gaztetan Elgoibarren bizi izandako margolari profesionala da Fausto. Besteak beste, koadro figuratiboak eta hiperrealistak ikusteko aukera izango dugu. Erakusketa martxoaren 3Ira arte egongo da zabalik.

• **Frida Hhalo pintorearen biografiari eta arteari buruzko hitzaldia**

Ana Irigoien EHuko Arte Ederretako irakasleak Frida Khalo pintore mexikarrari buruzko hitzaldia eskainiko du datorren ostegunean, hilak 25, arratsaldeko 19:00etan. Ez da ohiko hitzaldia izango, biografiaz gain, diapositiben bidez margolari interesgarri honen arte lanak ikusteko aukera ere egongo baita. Urruzuno Literatur Taldeak antolatu du hitzaldia eta Kultur Etxean izango da. Hilean behin antolatuko dituzten ekintzen barruan kokatzen da Frida Khalori buruzko hitzaldia.

• **Billar Txapelketa antolatu dute Oraiko tabernakoek**

Oraiko tabernak antolatuko Billar Txapelketan izena emateko epea bihar, hilak 19, arnaituko da. Txapelketa martxoaren 22an hasiko da eta partidua gaueko 22:00etatik aurrera jokatuko dira, Iga modura. Izena ematen duten parte hartzaile kopuruaren arabera osatuko dira taldeak. Partidua amerikar estiloan jokatuko dira.

• **Odol ateraldia hilaren 2Ban**

Odol Emaleen Elkartetik aditzera eman nahi dute, datorren ostiralean, hilak 26, odol ateraldia izango dela Fedro Migel Urruzuno 8ko egoitzan. Aurrez deitutako guztiei eta 18 urtetik gorako herritarrei odola ematea oso garrantzitsua dela gogorarazi nahi diete.

T X A N D A K

FARMAZIAK

Egunez Gaeuz

19 Bidasolo Bidasolo

20 Etxeberria Etxeberria
(Santa Ana kalean)

21 Etxeberria Etxeberria
(Santa Ana kalean)

22 Anduaga Anduaga

23 Yudego Yudego

24 Zabaleta Zabaleta

25 Etxeberria Etxeberria
(Errosario kalean)

26 Escala Escala

ESCALA: Rekalde, 1

Soraluze. Tel: 943 75 16 38

ANDUAGk Mendarozabal, 1

Garagarza. Tel:943 75 61 42

ZABALETA: Kalebarren, 9

Soraluze. Tel:943 75 13 84

OKINDEGIA

19 ostirala Elzaglrrre

21 igandea Fotero

GARRI kluba



Zuzendaria: Emir Kusturica.
Antzezleak: Bajram Severdzan,
Florijan Ajdini, Jasar Destani.

Gato negro, gato blanco (8erbia 98)

Zuzendari onenaren urrezko lehoia irabazi zuen iaz Venecian. Orgia zinernatogratiko zoroa, barregarria, komikoa, rrealista, erromantikoa eta esperpentikoa da. Emir Kusturica serbiarra Europako zinegilerik libreena eta sortzaileena da, eta komedia beltz honen bidez Danubio ertzeko ijitoen klanek dituzten ezaugarri bitxiak azaltzen dizkigu: maitemintzeak, interesak, negozioak, ametsak, bizitzarekiko ikuspegia....

Lana

Sallerosketak

Etxebizitzak

- Kanpora ematen duen pisua saltzen dut. Eguzkitsua. 4 logela, sukaldea, saloi-jangela, 2 bainugela eta patio-trasteroa. Oso handia. Urasandinis 943 74 14 54
- Etxea saltzen da Santa Ana kalean. 2. pisua da, ganbara eta igo-gailuarekin. tir 943 74 03 83 943 74 18 34
- Lokal bat alokatu nahi genuke. 20.000 pta. ordaintzeko prest gaude lokalaren arabera. a 943 74 35 68 (Abraham).
- Santa Polan bungalow-a alokatzen da Abuzturako. s 943 14 34 31. (13:00-17:00 eta 20:00-22:00)
- Ganbara bat alokatu nahi nuke. Gehienez 30.000 pta. ordaintzeko prest nago. s 943 20 01 01
- Etxebizitza saltzen da Errosario kalean. la 943 74 17 95
- Pisua edo buhardila hartuko nuke alokairuan. s 943 74 31 75

Bestelakoak

- Ostiralean, hilak 5, M. Markez eta P. Aristiren ekitaldian norbait aterkia aldatu zidan Kultur Etxeko sotoan. Nirea berdea eta kuadroa da. Eta orain dudana, berenjena kolorekoa, *Kerastase* etxekoa da. Hartu zuen ekar dezala inesedez AEK euskaltegira.
- Zilarrezko pultsera bat aurkitu nuen Txarriduna eta Iriondo tabernen inguruan. Zera dauka idatzita: 11-11-95 eta Xabier izena. Jabeak dei dezala 943 74 04 90 telefonora.
- Bi logela alokatzen dira Santa Klara 20-7C. tr 943 74 24 06 (M. Tere).
- Taberna hartuko nuke errentan. ir 943 75 10 16 (Mertxe edo Jestis)
- Bi logela alokatzen ditut. 12: 943 74 03 93 (19:30etik aurrera)
- Caritas-ek butanozko estufa eta garbigailua behar ditu. tr 943 74 15 09
- Jubilazioagatik, martxan dagoen negozioa traspasatzen da Merkatu Plazan. Prezioa hitz egitekotan (aukera ona). tr 943 74 02 27 Celsa
- Urrezko aliantza galdu nuen Inauterietako larunbatean. 943 74 40 56 (Manoli)
- Lehengo egunean, inauterietan eta hondartzan ateratako argazki batzuen negatiboak aurkitu nituen. Jabeak Udaltzaingoa aurki ditzake.

SALDU

- Silver Cross kapotadun kotxea salgai, osagarriekin. tr 943 74 37 82 (19:00etatik aurrera)
- Karabana abantzearekin salgai. Adria 3,50 m-koa, 4 pertsonarentzako. tr 943 74 07 85
- Akuario guztiz ekipatua salgai. 70-40-35 neurrikoa. a 943 74 18 39
- G.A.C. Onix 75eeko motoa saltzen dut. Paperak eta ordezko piezak ditu. tr 617 93 14 74 (Eneko, 20:30-21:00)
- Peugeot Rdpida motoa 50kInforduko abiadura hartzen du. tr 943 74 17 87 (gauzez)
- Camping denda altua salgai. 2-4 pertsona, jangela eta toldoarekin. 10-15 egunetan ibilia. tr 943 74 05 37 (Mila)
- Ford Courier Combi 1.8D saltzen da. Ondo zaindua, 1992ko uztailean erositako. 610 65 34 52 (gauzez)
- Gorreriarentzako aparatua saltzen dut. 8 hilabeteko garantia du. tr 943 74 21 40

14"ko pantaila, 10X CD ROMA eta S3 txartel grafikoa salgai. Oso merke. tr 943 74 00 07

• Citroen ZX 1.81 salgai. Egoera onean. Interesatuak deitu 630 52 60 52 telefonora.

• Dynastar modeloko eskiak saltzen dira. Altuera 1.85m. Nordica botak, zenbakia 42-43. ts 943 74 18 55

• Txalet modeloko kanpin denda handia saltzen dut. Egoera onean. Abantzea, egoteko lekua eta bi gela bikoitz ditu. tr 943 20 68 48 (8:00-16:00) 943 74 05 14 (19:30etik aurrera)

• EROSI*

• Sealextric-aren autoak, pista, osagarriak etah. erositako nituzke. tr 943 74 18 55

Garajeak

- Olasope industrialdean garaje itxia salgai. tr 943 74 31 56
- Garaje marraduna alokatzen da San Roke 5ean. tr 943 74 11 61
- Garaje itxia salgai Pista BeItzean, te 943 74 03 81
- Leku Ederren garaje marraduna edo itxia alokatu nahi nuke. tr 930 54 99 31
- Garajea saltzen da Urasandi 6an. Argi independentea. tr 943 74 08 63

• ESKAINTZA •

• 40-50 urte inguruko igeltseroa behar da hainbat lan egiteko. tr 943 74 31 02 (Josu edo Luis)

• ESKAERM

Emakurnea eskaintzen da edadeko pertsonak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. tr 617 87 01 04 (19:30etik aurrera)

• Emakume brasildarra eskaintzen da umeak zaintzeko edo etxeko lanetarako. 10:00etatik 16:00etara. tr 943 74 07 07/74 08 81

• Erizantzan diplomatutako neska euskalduna eskaintzen da pertsona gaixok edo edadetuak zaintzeko, etxean edo ospitalean. Egunez nahiz gauzez. tr 943 74 27 78 (liziar)

• Adinekoak eta gaixok zaintzeko prest nago. Arratsaldez edo gauzez. Esperientziarekin. tr 630 20 97 31

• Neska eskaintzen da, Arduratsua eta esperientziarekin etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. 610 68 52 95

• Magisteritza ikaslea eskaintzen da tunek zaintzeko Elgoibarren edo Mendaron. Orduetgia hitz egitekotan. a 943 74 20 94 (Yolanda)

Agurrak

• Zorionak Imanol Ulibarriri larunbatean urteak beteko dituelako, Familia guztiaren partez eta bereziki, bere seme Igorren partez.

• Zorionak Iruñe hilaren 21ean 11 urte beteko dituzulako. Zure lagun Laura eta Ainhoa. Zorionak!

• Zorionak 'guapísimo'. Zer uste zenuen, ez ginel gogoratuko hainbeste maite dugun pertsona eder eta tonto batekin? Zorionak Iker lehengusu guztien partez.

• Mendian lar artean... Zorionak Ainara hilaren 17an urteak bete zituelako. DBH 2koen partez. Aupa 'Guli-guli'.

• Zorionak Rakel de la Aradari gaur urteak bete dituelako. Familiakoen partez.

• Zorionak Mikel Galarzari hilaren 21e,an 10 urte beteko dituelako. Familia osoaren eta bereziki Ibairen partez. Zorionak baita ere Ikastolako 4. mailakoen partez,

• Zorionak Haritz, hilaren 23an 9 urte beteko dituzulako. Familiaren eta bereziki arropa Saioa eta Laxeren partez.



• Zorionak Kris eta Aitor horren gauza polita gure artera ekartzeagatik, Familiako guztien partez.



• Zorionak Igor Ulibarri hilaren 22an 10 urte beteko dituelako familiaren eta bereziki Ion eta Xabier le-

hengusuen partez.

• Zorionak izeba Karmen. Oso ondo pasatu larunbatean eta erregalo asko jaso. Baina ez ahaztu niri paga emateaz, bale? Zorionak zure iloba Paularen partez.



• Zorionak Haizea. Bihar 3 urte potolo! Musu handi bat eta ondo pasatu.



• Zorionak Alaitz Egañari bere lehen urtebetetzean familiaren eta bereziki Sara, Izaskun eta kaitz lehengusuen partez.



• Zorionak Iria Andraderi hilaren 24an 3 urte beteko dituelako. Familiaren partez.



• Zorionak Eduardori hilaren 22an 6 urte beteko dituelako. Familiaren partez.



• Kaixo, gu ez gaude gaixo! Zorionak ama, bilhar, hilak 19, urteak beteko dituzulako. Etxekoan partez.



• Pablo Santamartari zorionak, hiiaren 17an urtebete egin zuelako. Familiaren eta bereziki anaia Eduardoren partez.



ZEZEN-BIDE

Auto, autobus, kamioi
eta motorrentzako
gida-baimenak

AUTO-ESKOLA



*7% 10eko deskontua
Gazte Txartelarekin*



San Frantzisko, 43 - Tel: 943 74 27 20 - ELGOIBAR

Zezenbide,1-1 -Tel: 943 20 34 45 - EIBAR

Frida Kahlo

HITZALDIA

Gaia:

Frida Kahlo pintorearen biografia eta artea

Hizlaria:

Ana Irigoien
E.H.U.ko arte irakaslea

Antolatzailea:

Urruzuno Literatur Taldea

Lekua:

Kultur Etxeko hitzaldi gela

Eguna:

Martxoaren 25a

Ordua:

Arratsaldeko 19:00etan

NISSAN1

ALDIBI AUTOAK, S. A.

rtE¹⁷-1,T) 9212
ALMOVIL, S. L.



mitsubishi
MOTORS

ALDIKAR AUTOAK, S. L.



NISSAN CABSTAR E



NISSAN CABSTAR E



NISSAN PICK-UP King Cab.



NISSAN PICK-UP Navara kabina bikoitza.

Aldibi

Zure lana edozein
dela ere, erantzuna
aurkituko dugu.



GALLOPER EXCEED Confort



mitsubishi CANTER Kabina bikoitza



mitsubishi CANTER



mitsubishi L200 Club kabina



mitsubishi L200 Kabina bikoitza